

Minursoren ke hutsala

Marokoren eta Polisarioaren arteko su etena ikuskatu eta giza eskubideak bermatzea dira Nazio Batuek gidatzen duten Minurso misioaren helburuak. Duela gutxi hitzarmena berritu dute, baina sahararrak ez daude gustura, pasibotasuna salatu dute behin eta berriz. Honako kronikan arnas liteke misioaren jardunaz sahararren iritzia.

Testua eta argazkia:

| ANDONI LUBAKI |

MSAILAH GIZON TXIKIA DA, erre-tzailea eta argala. Saharar gehienak bezala. Zigarroak bata bestearen atzetik erretzen ditu “anaia zahararren aurrean ez bada” behintzat. Sahararrak tradizionalak dira eta helduenganako begirunea adierazteko ez dute haien aurrean erretzen, baimenarekin ez bada. “Lagun askok anaia ugari dituzte eta ezin dute etxean erre, kalean ere tentuz ibili behar familiako batek ikusi ez ditzan. Saharar familietan kide asko baikara”. Lagun guztiek errespetu bera ote duten galdetu diot. “Denek”, erantzun dit. “Anaiak kartzelan dituztenak edo aita desagertua duten askok ere ez dute etxean erretzen”.

Mendebaldeko Saharan kanpotar izateak gain-gaineko zainketa dakar.

Komunera joanda ere zelatan izango dituzu kale-poliziak. “Horretarako nesken komunera sartu behar badute ere”, gaineratu dit Msailahk atzean ditugun bi gizon ikusi ondoren. “Ez gaituzte bakean utziko sekula”. Sahararren eta beraiei buruz informatu nahi duen edonoren aurkako jazarpena ez da horretara mugatzen. Espainiar kolonia izan zen lurralde honetara iritsi nintzenetik ondoan izan dudana Msailahk torturak pairatu dituen ezagun baten etxera narama. Baina lehenbizi atzetik ditugun polizia sekretuak galdu behar.

“Zatoz ona, taxi bat hartuko dugu” esan dit. Taxi ilara bat pasatzen utzi du Msailahk, konfiantzazkoa dena hartu behar delako. Konfiantzazkoa izatea Laayouneko kale

hauetan saharar izatea da. Poliziak galduko dituen taxi zintzo bat. Inori sekula nora joan garen esango ez diona. Taxista-aktibista deitzen diet nik.

Habib torturatuaren etxean

Saharar baten autoan igo garenerako pasako zen ordu erdi gutxienez, baina azkenean taxista-aktibista itzela topatu dugula aitortu behar dut. Lau aldiz etxe berari buelta eman, lagun baten tailerrean sartu eta atzeko aldetik irten eta badaezpada ere beste etxe bati hiruzpalau buelta eman. Ondoren, inongo kale nagusirik hartu gabe, eta beti atzera begira gabiltzala, jipoitutako pertsona horren etxera iritsi gara eta ahal bezain azkar barrura sartu. “Bizilagunak zelatan izan ez ditzagun”.

Zer da Minurso?

Minurso (Nazio Batuen Misioa Mendebaldeko Sahararen Erreferendumerako) 1991. urtean sortu zen Maroko eta Polisarioaren arteko su etena ikuskatzeko. Hainbat naziotako soldaduk eta diplomatikok osatzen dute –gehienean asiarrak eta afrikarrak–. Mendebaldeko Sahara banatzen duen hormaren bi aldeetan daude misio honen kanpalekuak.

Azken urteetan oso kritikatu izan da lurralde horretan duen papera. Su etenaren begirale izateaz gain, eta sahararren independentzia edo Marokora anexioa erabakitzeke erreferenduma egiten den bitartean, giza eskubideak defendatzeko eskatu zaio.

Halere, Maroko kolonizatzailearen aliatua den Frantziako Estatuak, Minursok izan behar lukeen paperaren inguruan egiten diren bilera guztietan betoa ezartzen du.

Lurralde okupatueta bizi diren sahararrak kalera ateratzen dira sarritan protesta egitera. Polisarioak ere behin baino gehiagotan adierazi du Minursok giza eskubideak ikuskatzen ez baditu armak hartzeko prest dagoela, “bere herria ezin utz baitezake kolono militarren menpe”. Gauzak horrela, Minurso da munduan giza eskubideak ikuskatzen ez dituen Nazio Batuetako misio bakarra.



Argazkietan irteteko beldur dira sahararrak, poliziek jipoitzeko arriskuagatik. “Ez gaituzte bakean utziko sekula” dio Msailah-ak.

Lagun horren etxea txikia da. Baina bertan sei bat gazte ordenagailuaren ondoan ari dira hizketan. Denak jaiki dira ni gelara sartu bezain pronto, ni agurtu nahian. Segituan, jipoitutako lagunaren ondora naramate eta hark bizkarrean dituen ubeldurak erakutsi dizkit.

“Hilabete luze egin dut ospitalean, ez guraso ez familia ez lagunik ikusi gabe. Medikuek marokoarrak agindu duenean bakarrik ekarri naute etxera. Pentsa, oraindik bizkarra horrela badut, nola izango nuen gorputz osoa orain dela hilabete. Ostiko eta ukabilkadek gorputz osoa ubelduta utzi zidaten. Hori gutxi balitz, eta sudurra odoletan nuela, buruz bera izan ninduten ordu pare batez jarraian. Txiza gainean ere egin zidaten”. Bere delitua zein izan zen galdetu diodanean, hark segituan eta nire lagun txikiak itzultzaile lanak hasi baino lehen, hassanieraz (sahararren hizkuntza) sekulako parrastada bota dit. Haserre dago Habib, jipoitua izan den mutil gaztea.

“Euren lana egiten ez badute, zertarako daude hemen?”

“Minursok giza eskubideak ikuskatzeko eskatzen zuen manifestaldi batean nengoen; legez kanpoko manifestaldia zen, denak bezala. Hemen ezin duzu manifestaldirik egin legalki. Marokok inongo jui-ziorik gabe jendea espetxeratu du, ehunka desagertu daude, umeak eta

“Ez erreferendumik egin ezta giza eskubideak bermatu ere. Doazela pikutara!”. Haserre utzi dugu Habib, jipoitua izan den mutil gaztea

zaharrek jipoitzen dituzte, baita askotan hil ere. Eta munduak zer egiten du? Ezer ez, hona ez da etortzen kazetaririk. Guk geure aldizkaria atera behar dugu” dio Habibek inprimatzaile zahar batetik atera

berri den panfleto bat erakusten didan bitartean. “Euren lana egiten ez badute, zertarako daude hemen Minursoko langileak. Ez erreferendumik egin, ezta giza eskubideak bermatu ere. Doazela pikutara!”. Bere lagunak ere iritzi berekoak dira eta denek esaten dute Minursok ez duela ezer egiten. Haserre utzi dugu Habib bere gelaxkan, baina halere nahi dudanean bueltatzeko esan dit.

Kalera irtetean Msailahk zigarro bat piztu du. “Barnean nire familako bat zegoen”. Isilik dago oraingorain ordea, pentsakor. “Askotan iruditzen zait Alahk gure nahiak desagerrarazten dituela ke hau bezala, horrelako gazteei gertatukoia ikusi eta Minursok ezer egiten ez duenean. Minurso izan beharko litzateke kea moduan desagertu beharko litzatekeena, eta ez gure garrasia”. Zigarroa amatu baino lehenago bestea piztu du, kea sekula desagertzeko nahi ez balu bezala. ■

